



# Nafarroako Gobernuak Hithiumen bateria fabrikaren heren bat izango du

- Mikel Irujok azaldu du konpainia txinatarrak 100 milioi euroko kapital ekarpena egin nahi duela, eta Sodenak 50 milioi euro ingurukoa.
- Beste 255 milioi euro lortu nahi dituzte, horietatik 81 milioi laguntza publiko bidez.

## Joxerra Senar

IRUÑEA— Hithium Txinako bateria ekoizlearen eta Nafarroako Gobernuaren akordioa ez dago oraindik lotuta, baina atzo arratsaldean Mikel Irujo Industria kontseilariak negoziazioari buruzko xehetasunak eman zizkien Nafarroako parlamentariari. Lantokia Hithiumen eta Sodena sozietate publikoaren arteko enpresa aliantza batek kudeatuko du. Kontseilariak aurreratu zuenez, haren kapitalaren bi heren izango ditu Txinako enpresak, eta beste herena Sodenak.

Hithiumek Nafarroan bateria fabrika batean inbertitzeko urratsak egin baditu ere, horren inguruko baldintzak negoziatzen ari da azken asteetan Nafarroako Gobernuarekin. Orotara, 405 milioi euroko inbertsioa egiteko asmoa du. Parlamentuan, Irujok azaldu zuen bien arteko kapitala nola banatuko den (150 milioi) eta gainerako finantzaketa (255 milioi) nondik lortu nahi duten. Agerraldia bere ekimenez egin zuen Irujok.

Behin akordioa lortuta, helburua da fabrika 2027 amaierarako martxan egotea eta 700 enplegu sortzea. Fabrikak hamar gigawatt-orduko energia biltegitratzeko sistemak ekoiztuzko litzuzke, bai eta 7,5 gigawatt-orduko bateria zelulak ere.

### Kapitalaren banaketa

Enpresa aliantza sortuta dago: urtarillaren 23an erregistratu zuen Hithiumek, Iruñean. Iru-

joren arabera, elkarrizketetan Hithiumek hasieran proposatu zuen 61 milioi euroko ekarpena egitea, baina bere kapitala ehun milioi euroraino handitzeko prest azaldu da. Sodenak, berriz, «50 milioi eurorainoko ekarpena egin dezake sozietate bateratuan».

Proposamenak aise gainditzeko Ogasun Publikoaren Foru Legeak Sodenari ezarritako sei milioi euroko muga, eta, horregatik, Nafarroako Parlamentuaren baimen berezia beharko du Nafarroako Gobernuak proiektu hori aurrera ateratzeko. «Ez da izango itzuli beharrik gabeko laguntza publikoa», zehaztu zuen Irujok, eta hau gaineratu zuen: «Sozietate horretan kapital publikoa sartzeari arrazoituta dago enpresaren errotzeari dagokionez, Nafarroan lantokiaren etorkizuna ziurtatzeko eta industria katearen osaera eta bertako langileen kontratazioa bermatzeko».

Atzokoan, Irujok ez zuen aurreratu beste bazkideren batek parte hartuko ote duen proiektuan, baina aipatu zuen «atea ireki» dutela «beste eragile batzuk, publikoak edo pribatuak, Sodenarekin batera parte har dezaten sozietate bateratuaren kapitalean».

Gainerako 255 milioi euroak bi bidetatik lortu nahi dituzte. Batetik, 174 milioi euro lortu nahi dituzte bankuen finantzaketaren bitartez eta FAAIP Espainiako Industria Produktzioaren Inbertitzea Babesteko Funtz bereziaren bidez: diru kopuru hori litzateke etorkizuneko fabrikaren kostu finkoak finantzatzeko

gutxieneko maila. FAAIP funtsa Sepi Industria Partaidetzerako Estatuko Sozietateak kudeatzen du, eta proiektuak finantzatzeko mailleu lerro bat du.

Bestetik, Europako Next Generation funtsei lotutako deialdian, 81 milioi euroko laguntza eskatu du Hithiumek energia biltegitratzeko proiektu bati loturik —Iruñean erregistraturiko sozietatearen bidez egin du eskaera—. Irujok aipatu zuenez, eskaera bide onetik doa, baina ez dago baieztatuta. Azterketa teknikoa egitea falta da. Gaur-gaurkoz, Espainiako Trantsizio Ekologikoaren Ministerioaren menpeko IDAE institutuak energia berriztagarriei dagozkien 41 proiektu finantzatu ditu, eta 165 milioi euro banatu. Hortaz, Hithiumen eskaera onartuko balitz, orain arteko laguntzarik handiena litzateke.

Dena den, Irujok azpimarratu zuen diru kopuru horiek behin-behinekoak direla eta «zertxobait» alda daitezkeela negoziazioan. Aurreakordio inbertsioaren egitura, gobernantzaren baldintzak, Hithiumen eta Sodenaren arteko erlazioa eta finantzaketa lotu nahi ditu, eta haren emaitza liteslea izango da.

### Baimenen menpe

Aurreakordioa «ezinbesteko urratsa» izango da Txinako Gobernuak Hithiumi atzerrian inbertsio zuzena egiteko baimena eman diezaion. Espainiako Gobernuaren baimena ere lortu beharko du. Irujoren ustez, Hithiumen egitasmoak «tokiko produktzioa» bermatuko du. ●